

# LIBURU ESKAINTZA

2026ko uda


The logo for 'aeek' is written in a stylized, lowercase, orange font. The letters are rounded and connected, with a vertical line extending upwards from the top of the 'e'.

**Garena ikasteko**  
para entendernos  
pour se comprendre

Liburuak irakurriz eta irakurriz dena ikasten zela uste zen antzina. Gaur egun badakigu den-dena ez dagoela liburuetan; euskara ikasteko ere liburuak baino gauza gehiago behar ditugu, bai. Halere, liburuak hortxe jarraitzen dute eta, guzti-guztia ekarri ez arren, kontu ugari aurkituko dituzu.

Batzuek euskara ikasten lagunduko dizute: euskaraz idatzitako istorioak, historiak eta poemak. Horietan, benetako eta fikziozko euskaldunak zuri mintzatuko zaizkizu liburuetako hitzen bidez, eta irakurriko dituzu hainbat izen, aditz, berba, pasarte eta paragrafo zuretzat patxadaz prestatuak, patxadaz irakur ditzazun.

Beste batzuek, berriz, euskara ikasten ari zarela ahantzaraziko dizute. Ezagutuko dituzu lekuak, pertsonak, istorioak eta sentimenduak: poza, beldurra, barrea, harridura... Murgilduko zara letren itsaso batean, eta hantxe gozatuz euskara ikasiko duzu euskara ikasten ari zarela ahaztuta.





## ZALDI BAT

Maddi Ane Txoperena Iribarren


Alaba jaio eta sei hilabetera, mendira joaten hasiko da Miren, Unai hil eta bortz urtera. Zaldi bat aurkituko du han: grisa, marroia baino gehiago. Ez edozein zaldi. Errepidea garbitzen ari den gizon bat, ustekabeko karta joko bat, pilota partida baten ondorena, ligatzeko jarraibideak, denboran poteatzen duen bisita gidatu bat, autopsia poetiko bat eta hainbat gai esentzial aterako zaizkio bidera Mirenen ahots zatikatuari: heriotza, dolua, maitasuna, espiritualtasuna, eromena, amatasuna, eta, batez ere eta denaren gainetik, laguntasun kontraeranzeko bat. Hauxe da Txoperenaren hirugarren eleberria, eta oraingoan ahots eta forma berriz jantzirik dator, bere esentziari uko egin gabe.

**Maila:** C1

**Urtea:** 2026

**Orr:** 220

**Prezinoa:** 16 - 13,60 €



## DENA ZULO BERA ZEN

Eider Rodriguez

Sute arrisku handieneko urte-sasoia da kanikula, uda-mina, eta hark ematen dio izena liburu honetako sei istorioetan lehenari. "Nor zara?", galdetzen dio pertsonaietako batek besteari. "Ur asko eta beste elementu batzuk, zu bezala", erantzuten dio.

Zerua argi egon arren, arnasa hartzea hain erraza ez den paisaia bat hedatzen da liburu honetan. Edertasunaren eta heriotzaren igurtzi amaigabean, bakea ez, egia aitzurto nahia da protagonista. Laguntasuna eta sentsualtasuna ageri dira, olatu artifizialak eta uharteak, doluen aurreko doluak, zorion moderatua, esku batzuek egin dezaketena baina sekula egingo ez dutena. Inoiz baino gorputzago sentitzen den jendea —hortzak, hazia, hezurrak—, eta, tarteka, inoiz baino hondakinago, zakarrak eta ametsak, biak, eguzkitara ateraz.

Hendaian, Irunen, Hondarribian, Bordelen, Donostian, Koh Phanganen, Erreterian; elkar besarkatuta kabitzeko moduko zulo txiki batekin aski zatekeen. Gauza guztien azkenaldi bat —eta ondorioz lehena— Eider Rodriguezen bosgarren ipuin liburuan.

**Maila:** C1

**Urtea:** 2025

**Orr:** 196

**Prezinoa:** 19 - 16,15 €




## DEITALE XUME BAT

Adania Shibli

1948ko arabiar-israeldar gerran zehar zazpiehun mila palestinar baino gehiago izan ziren beren etxetik egotziak. Hondamendi horri deitzen zaio Nakba edo palestinar exodoa. Handik urtebete pasatxora, 1949ko udan, Israelgo estatu sortu berriak destakamentu militar bat bidali zuen Negev basamortura Egiptorekiko hegoaldeko muga zaintzeko, baita ingurua arakatzeko ere, han gelditzen ziren arabiarren bila. Espedizio horietako batean, soldaduek beduino talde bat aurkitu zuten, eta aurkikuntza hura krimen baten abiapuntua izan zen. Zenbait hamarkada geroago, XXI. mendearen hasieran, emakume palestinar batek gertakari horri buruzko artikulu batekin egin du topo, eta, harekin lotutako detaile xume batekin obsesionaturik, bidaia arriskutsu bati helduko dio lurralde okupatuetan zehar, egiazen bila.

**Maila:** C1      **Urtea:** 2024      **Orr:** 160      **Prezinoa:** ~~20,50~~ - 17,50 €



## BAT! ZIBERBULLYINGAREN AURKAKO TALDEA

Alex Hallat

BAT taldeak bullyingari aurre egitea, bullyinga jasaten ari direnei laguntzea eta ondo pasatzea dute helburu. Beren istorioak ezagutzera emateko bi liburu eman ditugu argitara: BAT, Bullying-aren Aurkako Taldea eta BAT ziberbullying-aren aurka Alex Hallat Zeelanda Berriko idazle eta ilustratzaileak sortuak dira. Hirugarren istorioa ere prestatzen ari gara: Partida handia.

Liburuaren amaieran bullyingaren inguruko hainbat aholku emango zaizkio irakurleari, baldin eta bullyinga jasaten ari bada, ziberbullyinga egiten ari bazaizkio sarean edo telefonoan, edota beste bati bullyinga egiten ari zaizkiola ikusiz gero.

Udako oporraldi luzearen ostean gertatuko da: BAT taldeko kideek deskubrituko dute haien eskolak ez daukala dirurik eta ez dutela ikasturte berrirako irekiko. Hasieran, poztu egingo dira, baina zorionak ez die askorik iraungo, konturatut baitira eskola ezberdinetara joango direla handik aurrera. Hasieran, telefonoei esker eutsiko diote elkarren arteko harremanari. Gero, ordea, mezu beldurgarriak iritsiko dira.

**Maila:** B1      **Urtea:** 2020      **Orr:** 152      **Prezinoa:** ~~14,20~~ - 12,10 €



## BELARRIKO KILKERRA

Uxue Alberdi Estibaritz

Ahoz kontatu eta belarritz jasotako testuak dira. Norbaitek apartatu ditu eguneroko bizitzako gertakari-sailetik eta gorde ditu memoriaren kaiolatxoan. Min edo ditxa zirelako, gogoratzea merezi zuten. Akorduan hartu zituenak ez zituen beretzat gorde, ordea, eta, aldian-aldian, lagunen konpainia noblean, ahora ekarri izan ditu txitean-pitean.

**Maila:** B2      **Urtea:** 2023      **Orr:** 112      **Prezioa:** ~~15,50~~ - 13,20 €



## MAITASUN KAPITALA

Karmele Jaio Eiguren

Bere maitalea izandako Martinen hiletan dago Olga. Bertan gogoratzen du berarekin bizi izandako pasio sutua, gizonak duela urtebete utzi zuen arte. Oroitzapenetan murgilduta, Martinekiko bere mendekotasun emozionalaz ohartzen da, eta horrek agerian uzten dio, bere burua emakume aske eta ahaldundutzat bazuen ere, maitasunarekin beti izan duen kontraesana. Aldi berean, tesi bat zuzentzen dabil Olga irakaslea, emakumeei maitasuna euren bizitzako erdigunea izaten erakutsi zaien moduan sakontzen duena, horretarako Artearen eta Literaturaren historiako zenbait lanetan oinarrituz. Pertsonaiek bizitako esperientziak eta bateko nahiz besteko artistek piztutako gogoetak tartekatuz, nobela anbiziotsu bat osatu du Karmele Jaiok, arin irakurtzen dena baina arrasto sakona uzten duena, nor bere buruari begira hausnarketara bultzatzat.

**Maila:** C1      **Urtea:** 2023      **Orr:** 240      **Prezioa:** ~~22,75~~ - 19,35 €



## HARRIZKO BIHOTZA (Laupaden alfabetoa)

Karmele Jaio Figuren

Urtetan zehar egindako gogoetak, apunteak eta burutazioak bildu ditu Karmele Jaiok, hiztegi baten moduan antolatutako liburu honetan. Umetako oroitzapenak, lagunen pasadizoak, kalean ikusitako eszenak, libururen bateko aipuak, aforismo gisako esaldi laburrak, poema moduko pasarteak... Era askotako gaiak eta idazmoldeak landu ditu egileak, arintasuna eta sakontasuna ederki konbinatzen dituen idazkera hurbil batean.

**Maila:** B2/C1    **Urtea:** 2025    **Orr:** 200    **Prezioa:** ~~21~~ - 17,85 €



## CAFÉ MOKKA

Jabier Muguruza

Jabier Muguruzaren testuak lehen pertsonako kontakizun intimo eta ironikoa eskaintzen du, kafetegi baten egunerokotasunetik abiatuta. Narratzaileak bere ibilbide pertsonala eta profesionala azaltzen ditu, musikari izatetik kamarero izatera egin duen bidea, tonu konfidentzial eta autoironiatsuan. Idazkerak deskribapen zehatzak eta gogoeta filosofikoak uztartzen ditu, jazzaren inguruko pasio pertsonaletik gizartearen bilakaeraren analisi kritikoraino. Pertsonaien erretratuak biziak eta sinesgarriak dira, elkarrizketa natural eta umoretsuen bidez marraztuak, eta horrek errerealismo handia ematen dio narrazioari. Café Mokka kafetegia behatoki soziokultural bilakatzen da, non bezeroen elkarrizketek eta eguneroko egoerek gizartearen kontraesanak, joerak eta aldaketak islatzen dituzten. Testuak nostalgia eta egunerokotasunaren edertasuna uztartzen ditu, baina aldi berean kritika zorrotza egiten dio gaur egungo gizartearen infantilizazioari eta harreman sozialen azalekotasunari. Lanak freskotasun narraitiboa eta sakontasun intelektuala uztartzen ditu modu originalean.

**Maila:** C1    **Urtea:** 2026    **Orr:** 172    **Prezioa:** ~~19~~ - 16,15 €



## ESNATU ALA HIL – EUSKARAREN ORAINA ETA GEROA, DIAGNOSTIKO BATEN ARGITAN

Garikoitz Goikoetxea, Iñaki lurrebaso

Noraez moduko bat sumatzen da euskalgintzan azken urteotan: euskararen indarberritze-prozesuak beste bultzada bat behar duela, baina zantzu gutxi dago urratsak non-nola egin. Badira esaten dutenak euskararen aldeko grina moteldu egin dela, lo antzean dagoela. Etsipen edo ilunaldi bat ere badago: azken hamarkadetan egindako ahaleginak ez duela ekarri espero izandako –edo amestutako– emaitzarik, batez ere erabilerari dagokionez. Aldartearen edo autoestimua ikuspegitik, ez dira euskalgintzaren garairik distiratsuenak.

Esnatze baten premia agerikoa da: astindu bat, urrats handiagoak, bestelako lan-ildoak. Orain artekoarekin honaino iritsi gara; aurrera egiteko, hori baino gehiago behar da.

Nola ari gara? Norantz ari gara? Sarritan, iritzi-uste hutsetan oinarritutako balorazioak egin ohi dira euskararen egoerari buruz, norbere sententzietan soilik erreparatuta. Horiek gutxietsi gabe, baina, euskararen etorkizuneko indarberritze-prozesua irudikatzeke, ezinbestekoa da egoerari eta bilakaerari buruzko oinarri sendoa izatea, zer gertatzen ari den ondo ikustea.

Euskararen indarberritze-prozesuaren momentu giltzarri honetan, hizkuntza-larrialdiaz eta euskararen bidegurutzeaz hainbeste hitz egiten den garaioan, ekarpen bat egin nahi du liburu honek: beste betaurreko batzuekin begiratu nahi diogu euskararen egoerari, ikuspegi demolingüistikoan oinarrituz eta hizkuntzaren osasunari buruzko aldagai nagusiak aztertuz.

Datozen hamarkadetakoa bidea irudikatzeke, ezinbestekoa da begiak irekitzea: euskararen bilakaera eta egoera zein diren ohartzea. Euskararen biharko ametsak esnatzea eskatzen baitu gaur. Horretarako helduleku izan nahi du liburu honek: begirada argitzeko tresna.

**Maila:** C1    **Urtea:** 2025    **Orr:** 272    **Prezioa:** 22 - 18,70 €



## HARAKINEN ALABA

Yurre Ugarte

Alex Garmendia, baserritar harakin baten eta kantari ye-ye baten alaba, ikus-entzunezkoen gidoigilea, imajinario sukartsu baten jabea, krisi edo aldaketa betearen murgilduta dabil. Pandemiaren gurasoak hil eta haien herentzia jaso berritan, dena utzi (lana, etxea, bikotekidea) eta bere baitan arakatzen hasten da, familiako sekretuetan aztarrika, iraganean bere ondoezaren gakoa aurkitu nahirik edo.

Geruza ugari testua osatu du Yurre Ugartek, egin ahala eraikitzen den eleberrri baten itxuran, era askotako osagaiak biltzen dituen: familia ustez tradizional baten lehortasun emozionala, gaztetxo baten bilaketak eta noraeza, telebista eta zinema munduko erronka eta ajeak, idazketeri buruzko hausnarketak, emakumeen kontrako indarkeria sexuala... Guztia ere, idazkera bizkor eta begirada pindartsu batez jositia.

**Maila:** C1    **Urtea:** 2026    **Orr:** 152    **Prezioa:** 16 - 13,60 €



## MIO MARTITO DEITZEN ZION

Joxean Agirre

Bere ohiko idazkera dotorez ondu eta umore-printza etengabez gatzozpindu duen eleberria dakarkigu Joxean Agirrek, literaturaren maitasunetik bezainbat autoparodiatik edaten duena.

Izan ere, idazle zahar, ospetsu eta txotxatzen hasi bat dugu, batetik; idazlenahi gazte, kazetari bekadun eta hasiberri bat, bestetik; biak gizonak, biak emakumezkoen miresle sutsu, eta biak gauzatu gabe geratutako amodio-istorioen oroitzailu mindu.

Hain zuzen, emakume hauen eskutik jasoko dugu gizonetzkoen berri: begirada amultsu eta apur bat ironikoa, fantasia ugari eta malezia gutxiko koitadu batzuen erretratu patetikoa eskaintzen diguna.

**Maila:** C1    **Urtea:** 2026    **Orr:** 148    **Prezioa:** 16 - 13,60 €



## BAKEA, BAKEA

Xabier Montoia

Inazio Osa –lehen Esnaola–, 43 urteko donostiarra, etxe oneko seme bakarra, amak mimatua bezain aitak gaitzetsia, emazte ohiak mesprextatua eta alabatxoak maitatua, lagunek pailazotzat hartua, ludopata, politoxikomanoa eta pornoadiktoa.

Amaren hileta-elizkizunean hasten da kontakizuna, Artzain Onaren katedralean, eta bere bizitzako sustengu bakarrenetakoa galtzean dena hondamendia dela sentituko du Inaziok, baina laster ikasiko du oker dagoela oso, deskalabruik handienez ere beti baita posible zuloan beherago erortzea, are eta zoritxar handiagoak etortzea.

Prosa zorrotz bezain neurtuaz idatzi du Xabier Montoiak eleberri sendo eta biribil hau, eta idazkera doi horren bidez jarraituko ditugu protagonista malapartatuaren ibilerak, bere sorterrian hasi eta patu makurrak eramaten duen lekuraino. Ez kontzesiorik, ez gupidarik, ez itxaropenik: non topatuko du Osak irrikaturiko bakeda?

**Maila:** C1    **Urtea:** 2026    **Orr:** 316    **Preziora:** 24 - 20,40 €



## DATORREN UDAN EZ GARA HEMEN BIZIKO

Ane Zubeldia Magriña

Igartza beka irabazitako azken proiektua (saria bertan behera geratu aurretik), sei ipuineko bilduma eder bat, Ane Zubeldia poeta, musikari, aktore eta itzultzaileak idatzia. Idazketa klasikitik hasi eta abangoardiako esperimientuaraino, denean erakusten du maisutasun galanta luma erabiltzean, eta sentiberatasun nabarmena istorioak jostean: bai pertsonaiak marraztean, bai eszenak eraikitzean.

Gai, giro eta garai askotako istorio hauetan gauzen, aroen zein pertsonen galeraren kontzientzia erne bat nagusitzen da, batetik, eta bestetik edertasunez gainezka egin eta traspazientzia-sentipena pitzen duten une magikoak, haiek emango baliote bezala zentzua bizitza labur eta hauskor honi.

**Maila:** C1    **Urtea:** 2026    **Orr:** 124    **Preziora:** 10 - 11 €



## AGERRE

Juan Luis Zabala

Lehen pertsona kontakutako kontakizun honek familia, kulpa eta oroimenaren arteko korapiloak arakutzen ditu, eguneroko gertakari xume batetik —istripu txiki batetik— abiatuta. Elkarren artean gurutzatzen dira aitaren eta alabaren arteko distantziak, iragan politikoa eta gizartearen zauri kolektiboak, eta agerian uzten dituzte pertsonaien barruko ahotsak. Istorioak denboran zehar egiten du jauzi, oroitzapenek eta gogoetek gidatuta, eta pixkanaka doaz osatzen pertsonaien harreman sare konplexua, tentsioz eta ñabarduraz beteriko paisaia emozional batean.

Testuak tonu intimu eta hausnartzailea du, irakurlea gertutik harrapatzen duena hizkera argi baina sakon baten bidez. Gai mingarriak jorratu arren, irakurtzeko arina eta erakargarria da, pertsonaien gizatasunak eta barne gatazkek indar handiz eusten diotelako. Oroimenaren eta kulparen gaineko galdera unibertsalak planteatzen ditu, erantzun errazik eman gabe, irakurlea bere kabuz pentsatzera gonbidatuz. Azken batean, kontakizun zintzo eta hunkigarria da, luzaroan buruan geratzen den horietakoa.

**Maila:** C1

**Urtea:** 2026

**Orr:** 128

**Prezioa:** ~~16,50~~ - 14 €



## MOEBIUSEN ERTZAK

Garazi Kamio Anduaga

Angela izan zen jaio zenean, XX. mendearen erdian, herri koskortu batean; barruko mugak apurtuz eta kanpoko hesiak gaindituz Angel izatera igaro zen, hirira ihes eginda, eta urte luzez bizi izan zen horrela; zahartzean, baina, gaixotasunek familiaren abaro estura itzularaziko dute, eta Angela bihurtu beharko du, ostera ere.

Transexualitatea eta zahartzaroa gurutzatzen dituen istorio honekin irabazi du Garazi Kamiok Irun Hiria eleberri saria. Bizitza hanka-puntetan igaro duten pertsona batzuen epika apala, tragedia ilunik gabeko drama, malko errazik gabeko hunkiduraz kontatua. Moebius zinta baten antzera, ertzak leunduak dituen eta alde kontrajarririk ez.

**Maila:** B2-C1    **Urtea:** 2025    **Orr:** 132    **Prezinoa:** ~~14,50~~ - 12,35 €



## SILUETA

Harkaitz Cano

Denek espero zuten nobela mardularen orde, Silueta lan esperimentalarekin itzuli da Ibarbia. Bahiketa baten istorioa kontatu digu bertan. Ez du inor epel utzi; alde edo kontra, sotil edo suhar, denek nahi izan dute zerbait esan —“bazen garaia”, “aukera galdua”, “antidotarik gabeko maisulan pozoitsua” —, eta, hain justu, nobelaz idatzi diren 31 iruzkinek osatzen dute liburu hau, Silueta-ren silueta.

Bi eleberri batean: idatzitakoa eta idatzi gabea.

Baina eraiki liteke nobela bat hura irakurri gabe, sortu dituen oihartzunetatik abiatuz? Atzeman daiteke nobelaren arnasa inguratzen duten testuak soilik irakurrita? Jolas literario hori proposatu digu Harkaitz Canok, bidean gogoetarako leiho andana irekiz bidenabar; zer eskatzen diogun arteari, zer irakurleari, zer kritikari, zer hurbileko historiaren memoriari.

**Maila:** C1    **Urtea:** 2025    **Orr:** 160    **Prezinoa:** ~~17,50~~ - 14,90 €



## IZEN BATEN PROMESA

Hedoi Etxarte

Aitor Etxarte Berezibarren hiletan oihukatutako akats batek —Gora Liga Komunista Iraultzailea!— idazlearen aitaren gaztaroko jendea elkartu du liburu honetan; lagunak, maitaleak, militantziako kideak. Haien hitzek osatzen dute orain kontakizunaren erdia —“Guk Franco akabatu nahi genuen, baina pijoak ere akabatu nahi genituen”; “Edertasuna, leherketa eta patxada bilatzen genituen”—, eta beste erdia, berriz, Aitorren galeraren aurreko minak idatzi du; erritu faltak, doluan atxiki nahi den guztiak.

Nor izan zen Aitor aita izan aurretik, eta, beraz, nor izan zen aita izan zenean ere?

Langile askapenarekiko konpromisoa, euskaldun izatearen pasioa eta malefizioa. Oteiza, Trotski, McKenzie Wark eta amatxi Pilar. Iruñea, Arrasate, Bartzelona. Musika klasikoa eta sexu desira. Antolakuntza politikoa eta ZIUa. Egun batetik bestera den-dena alda zitekeela sinetsi zuen belaunaldi bat —azkena?— eta potentzia haren guztiaren hondamendia, gaur arte. 1975 eta 2020. Heriotza denak heriotza bera al ziren?

**Maila:** C1    **Urtea:** 2025    **Orr:** 288    **Prezioa:** 21 - 17,85 €



## HONDOAZ GALDE-BIDERAKO ZINTEZIAK

Jon Sarasua/Mikel Artola

Zein dira gizakiak, nonahi eta noiznahi, bere buruari egiten dizkion galdera sakonenak? Zergatik dute gizon-emakumeek barrura eta kanpora begira jartzen dituen harago-min bat? Zertarako gaude? Zenbateraino hauteman dezakegu errealitatea? Errealitate iheskor honek badu hondo, iturri, taupada, asmo edo norabiderik? Galde-erantzunen bidez ari dira solasean liburuaren egileak. Egungo gizartean solasgai publikotik bazterturik dauden kontuez dihardute, errealitatearen hondoaz edo iturriaz, espiritualitateaz eta zientziatz, hainbat kontinentetako tradizio espiritualen emari zabalaz, egungo munduaren baldintza berriez... Zaila da arrazoiak atzeman ezin dezakeenaz gogoeta logikoak harilkatzea, eta hala ere asmo eder horri heldu diote egileek, adimenez bezainbat sentimenez, jakintza zabalaren tresneriaz eta urtetako gogoetaren esperientziatz.

Liburu honetan agertzen dena elkarrizketa-sorta zabalago baten lehen alea da, zeinak ororen muineko galderaz baitihardu, sakontasuna eta arintasuna uztartzen dituen formatu batean, gairik jasoenak xume egin nahirik, urrunak hurbil, abstraktuak atsegin. Egungo espiritualtasun likidoa, erlijioen izaera eta geruzak, emari filosofikoak eta muin esanezinak, modernitateko kritika-ildoak... Askok dira liburuan zehar landuriko arloak, polemikei eta arazoei iskin egin gabe.

Aro guztietan mugatu nahi izan da zertaz hitz egin daitekeen eta zertaz ez, eta hitz egin daitekeen horretaz ere ez dira gutxi zer pentsatu behar genukeen ezarri nahi diguten ahotsak. Horien ondoan, liburu honek, ausart bezain zintzo, mintzagaien irekiera bat proposatzen digu, ondoren norberak bere baitan edo komunitatean gogoeta egin dezan, askatasunez.

**Maila:** C1

**Urtea:** 2026

**Orr:** 240

**Prezioa:** ~~22,50~~ - 19,15 €



## ROBINEN NEBA-ARREBAK

Aitor Oñate

Nagore Saminaga, Dr. Martens botekin pauso irmoak ematen dituen skinhead mozkoite eta zakarra. Polizia izana, ahaztu nahi lukeen istilu itsusi batek handik bota zuen arte. Gaur egun SKAn, Substantzia Kimikoen Atalean egiten du beharra, gatzik eta arririk gabeko lana. Hala ere, Galindoko araztegiaren, Bilboaldeko kaka guztiak biltzen diren instalazioetan, heriotza bat gertatu da, ur-putzuetan pilotutako gasak gazte antisistema bat pozoituta. Istripua dirudi, baina Nagorek barruan darama ikertzailearen harra, eta denek kasua uzteko eta ixteko esan arren, zakurrak ezin hezurri jaregin.

Erritmo biziko thriller bat idatzi du Aitor Oñatek, gertaleku gogoangarrian kokatua eta pertsonaia zoragarriak betea: mundua salbatu nahi duten anarkista ekologistak, goi mailako dama misterioitsu altruistak, gizakiengandik ihesi drogen abaro gozoa bilatzen duten gazte hauskor eta maitagarriak.

**Maila:** C1    **Urtea:** 2026    **Orr:** 220    **Prezioa:** ~~21~~ - 17,85 €



## JAI ALAI

Gaizka Arostegi

1989 da. Martin Larralde, urte askoan munduko frontoietan ibilitako puntista, sorterrira itzuli da, Estatu Batuetako pilotarien grebarekin batera. Cadillac Eldorado gorri ikusgarri bat gidatzen du, 1976an partida gogoangarri batean irabazia, baina Martinen distira itzalixea dago geroztik, bere gorputz segaila ere alkoholak eta desengainuek apur bat makurtua. Zertara dator Larralde, hainbat urtetan Euskal Herrian agertu ez bada? Norengandik ihesi edo zeren bila? Baditu atzean utzi nahi lituzkeen mamuak, baina herrian ere ondo orbaindu gabeko zauriak irekiko dira ostera.

Kiroletako apustu eta trikimailuak, amodio debekatuen gazi-gozoak, arerio zaharrak eta etsai berriak nahasten dira Gaizka Arostegik idatzitako eleberrian, erromantzea eta thrillerra dosi zehatz eta erritmo bikainean uztarturik.

**Maila:** C1    **Urtea:** 2026    **Orr:** 206    **Prezioa:** ~~21~~ - 17,85 €



## MUGA HAUTSIEN HEGALAK

Ernesto Prat Urzainki

Larrak –lehen Lurra eta gero Larru izandakoak– bititza berri bat hasi du: drogak eta gehiegikeriak utzita, gaztak egiten ikasi du Pirinioan, eta artzaintzan dabil orain osaba Luzio eta Mirtaren Belzebenea baserrian, pandemia garai batean.

Bizimodu lasaia eraman nahi izanda ere, berez datoz arazoak, ordea: batetik, muga pasatu nahi duten gazte afrikarrak bolada batean gordetzeko eskatuko diete lagun batzuek; bestetik, Telleria urbanizazio-proiektuarekin aurrera jarraitu nahi dute espekulatzaila eta agintariak; azkenik, Itoizko Solidarioen borroka zaharrak ere bere lorrataz izango du hemen.

Baztan egiazko, kontraesanez eta bizinahiz betetako baten erretratu zorrotz bezain maitagarria eskaintzen duen trilogia osatu du honenbestez Ernesto Prat Urzainkik. Bizitza duinen aldeko borrokari alaitasunez eusten dioten guztientzako omenaldia.

**Maila:** C1      **Urtea:** 2025      **Orr:** 164      **Prezioa:** ~~17~~ - 14,50 €



## IRAILEKO ZAZPI EGUN

Eneko Azedo

Zeresan ugari eman zuen iaz Haizea Jauregibetiaren desagertpenak, Aizkorrieta herriko hondartzan neska desagertu eta egun batzuetara bere egunerokoa aurki-tu baitzuten, barruan guda zibil garaiko txanpon bat gordeta zuela.

Ertzaintzak ikerketa zabal bat abiatu zuen, emaitza ar-girik gabe. Bestelako froga materialik lortu ezinik eta egunerokoan esaten denaren fidagarritasuna zalan-tzan jarritz, kasua itxi egin zuten.

Orain, Haizearen familiak desagertutako neskaren egunerokoa lehen aldiz argitaratzen du, irakurle-ren batek familiari eman diezaiokeen aztarnaren bat lortzeko itxaropenarekin. Zure eskuetan daukazuna, desagertu aurreko bere azken zazpi egunen kronika zehatza da, Haizeak berak idatzia.

**Maila:** C1      **Urtea:** 2025      **Orr:** 156      **Prezioa:** ~~16,90~~ - 14,40 €



## AKELARREN HARRAPATUTA

Estibaliz Vivanco

Azkañeko atsua kanta herrikoiak ezkutatzen duen kontakizunaren laztasunak guztiz eraginda utzi du Adur Larralde, arreba Laia eskolan jasaten ari den jazarpenaren oihartzuna ekarri baitio. Kantaren magia ikastetxean ezarri eta, handik gutxira, protagonistek Pierre de Lancre epaile ankerraren madarikazioari aurre egin beharko diote.

**Maila:** B2-C1

**Urtea:** 2026

**Orr:** 192

**Prezioa:** ~~18~~ - 15,30 €



## FASHION

Maribel Aiertza Rementeria

Maddi desagertu egin da eskolakideekin eginiko irteera batean daudela. Ertzainari deitu eta ikerketa-lanak hasiko dira. Desagerpena ihesa izan da, ordea, sarean ezagutu duen gizon gazte batekin ospa egin du Maddik, sinetsita baitago haren ondoan bere bizitzako ametsa beteko duela: jantzi-diseinatzaile bihurtu. Aurki bihurtuko zaio ametsa amesgaizto. Harrapatuta ikusiko du bere burua beste emakume batzuekin batera, jantziak faltsifikatzen dituzten lantegi batean.

**Maila:** C1

**Urtea:** 2026

**Orr:** 156

**Prezioa:** ~~16,50~~ - 14 €



## RARA

Irati Bediaga Rementería

Handia izandakoan normala izan nahi zuen liburu honetako protagonistak. Umetan horretarako prestatzen aritu zen. Gizarteak ezarrita duen normaltasunaren ereduari onartua izateko casting-etan, ordea, askotan jaso zuen ezezkoa RARA zelako. Eta horrek bere buruarekin lotsarazten eta hasarrarazten zuen. Baina denbora dezente eta ausardia apur bat bereganatuz RARA izateak aske bihurtu zuen, ahaldundu egin zuen.

**Maila:** B2-C1    **Urtea:** 2025    **Orr:** 116    **Prezioa:** ~~14,40~~ – 12,25 €



## POZIKTIBO

Fernando Morillo Grande

Beldurra.

Enaitzek 13 urte ditu. Bideogile izateko ametsa zuen.

Egun batean, ordea, beldur madarikatu bat sentitu zuen barnean.

Eta orain ez du etxetik atera nahi.

Hodeik 14 urte ditu. Enaitzen arreba da. Ausarta. Leiala. Neba babestuko duela erabaki du.

Ezustean, misterioa.

Laguntzeko asmoz, irakasle batek jolas bat proposatuko die neba-arrebei: istorio bat grabatzea kalean.

Pintada misteriotu batzuk azalduko dira.

Bitxikeriak eta enigma bat osatuko da apurka: aztarnak, parke ezkutuak, txakurtxo galdu bat...

Eta beldurra?

Beldurra hortxe. Alboan. Barnean. Gutxien espero denean eraso egiteko prest.

Altxorren bila arituko dira.

Baina, beharbada, espero ez duten bestelako sari bat irabaziko dute.

**Maila:** B1-B2    **Urtea:** 2024    **Orr:** 102    **Prezioa:** ~~15~~ – 12,75 €



**ARIAN A1.1  
IKASLEAREN LIBURUA**

Preziora: ~~28,25~~ - 24 €



**ARIAN A1.1  
LAN-KOADERNOA**

Preziora: ~~16,50~~ - 14 €



**ARIAN A1.2  
IKASLEAREN LIBURUA**

Preziora: ~~28,25~~ - 24 €



**ARIAN A1.2  
LAN-KOADERNOA**

Preziora: ~~16,50~~ - 14 €



**ARIAN A2.1  
IKASLEAREN LIBURUA**

Preziora: ~~30,25~~ - 25,70 €



**ARIAN A2.1  
LAN-KOADERNOA**

Preziora: ~~21,25~~ - 18 €



**ARIAN A2.2  
IKASLEAREN LIBURUA**

Preziora: ~~30,25~~ - 25,70 €



**ARIAN A2.2  
LAN-KOADERNOA**

Preziora: ~~21,25~~ - 18 €



**ARIAN B1.1  
IKASLEAREN LIBURUA**

Preziora: ~~28,25~~ - 24 €



**ARIAN B1.1  
LAN-KOADERNOA**

Preziora: ~~21,25~~ - 18 €



**ARIAN B1.2  
IKASLEAREN LIBURUA**

Prezioa: ~~30,25~~ - 25,70 €



**ARIAN B1.2  
LAN-KOADERNOA**

Prezioa: ~~21,25~~ - 18 €



**ARIAN B2.1  
IKASLEAREN LIBURUA**

Prezioa: ~~26,25~~ - 22,30 €



**ARIAN B2.1  
LAN-KOADERNOA**

Prezioa: ~~20,25~~ - 17,25 €



**ARIAN B2.2  
IKASLEAREN LIBURUA**

Prezioa: ~~31,75~~ - 27 €



**ARIAN B2.2  
LAN-KOADERNOA**

Prezioa: ~~20,25~~ - 17,25 €



**ARIAN C1  
IKASLEAREN LIBURUA**

Prezioa: ~~31,75~~ - 27 €



**ARIAN C1  
LAN-KOADERNOA**

Prezioa: ~~22,75~~ - 19,35 €



## TANGOA NOIZEAN BEHIN

Miren Agur Meabe Plaza / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Malena au pair gisa etorri da Buenos Aiestik Euskal Herriko kostaldeko familia batera, haurrak zaindu eta etxeko lanak egitearen truke euskara ikastera. Familia horretan dagoen denboraldian, hainbat jenderekin harremanak izango ditu, batzuk atseginak eta beste batzuk mingotsak, eta aspaldi-aspaldi Argentinara joan zen birraitonaren baserria ezagutzeko aukera ere izango du.

**Maila:** A1    **Urtea:** 2012    **Orr:** 72    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## OTSOA

Josu Lartategi / Pedro J. Colombo (il.)

Otsoa lasai bizi da bere mendi eta zelaietan, elikagaia eskuratu eta familia zainduz. Otsoaren mundura etsai bat heldu da: gizakia. Eta gizakia etsai beldurgarria eta krudela da. Baina zer gertatuko da borroka horretan otsoa ere beldurgarria eta krudela denean? Nor nagusituko ote da?

**Maila:** A1    **Urtea:** 2012    **Orr:** 62    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## BORROKALARI ARGITSUAK

Miren Agur Meabe Plaza / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Zenbait emakumeren eta horien lagunen, bikotekideen, senideen... arteko harremanen berri ematen digu Borrokalari argitsuak izeneko liburu honek. Gaur egun, gure inguruko edozein tokitan aurki ditzakegu antzeko bizimodu nekoso eta korapilatsuak. Hala ere, pertsonaia guztiak dira borrokalariak: aurrera egin nahi dute, bakoitzak bere bizitza menderatzeko.

**Maila:** A1    **Urtea:** 2012    **Orr:** 72    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## SIBERIAKO LOREA

Josu Lartategi Yustos / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Andre zaharraren bizitza lasaia da. Bat-batean, norbaitek dei mehatxugarriak egingo dizkio. Telefono-dei horiek edozein ordutan izaten dira. Lehengo lasaitasuna infernu bihurtu da. Emakume gaztearen bizitza etorkizunik gabekoa da. Lan nekagarria egiten du telefonía-enpresa batean: ordu asko eta diru gutxi. Baina itxaropen eskaseko bizitza hori gotik behera aldatu da.

**Maila:** A1    **Urtea:** 2012    **Orr:** 64    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## NAIA CHINATOWN INGURUAN

Alvaro Rabeli / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Naia neska gaztea ez da Archer detektibe famatua, ez da Los Angeles-en edo New York hirian bizi. Naia gure artean bizi da, hemengoa da, títaniozko museoaren ondoan ibiltzen da egunero. Naia emakume langilea eta ikaslea da. Naia hirikoa da, gaurko kultura anitzeko hirian bizi da. Naiak ez du detektibe bokaziorik, baina lan egin behar du bizimodua ateratzeko. Naia zinema beltza da. Naia gure bizitzaren itsasgora eta itsasbehera da. Naiak guk bezala sufritzen du, maitatzen du. Naia Chinatown da, Jack Nicholson gabe.

**Maila:** A1    **Urtea:** 2013    **Orr:** 76    **Preziora:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## MALETA BAT IGOGAILUAN

Andoni Tolosa "Morau", "Mattin" (il.)

Hectorrek A1 maila egin du euskaltegian eta ikasturte osoa egunerokoan jaso du. Oso pozik dago Hector: lagun berriak egin ditu eta kalean euskaraz hitz egiten hasi da. Biba! Baina ikasturtea ez da beti samurra izan: urduritasuna, poza, lotsa, frustrazioa, harrotasuna, haserre, maitasuna... emozio-festa da euskaltegia! Eta eguneroko hau, euskaltegitik bizirik ateratzeko formula.

**Maila:** A1    **Urtea:** 2022    **Orr:** 92    **Preziora:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## OIHENARTEA EZ HUNKI

Bea Salaberri / Adur Larrea (il)

Peiok Oihenartea etxaldean du bititokia eta lana. Maite du laborari-lana, lurra, natura eta Baigorriko bizimodua. Bere ametsa da horrela bititzea: zorientsu da gustuko bizimoduan, maite duen familiarekin eta lagunekin. Baina bat-batean Peio desagertu da.

Non da? Zer gertatu zaio? Peioren desagertze misterioak kezka sortu du. Gainera Oihenartea etxaldea ere arriskuan da.

Oihenartea ez hunki istorioak misterioa eta elkartasuna lotzen ditu, eta egungo Ipar Euskal Herria eta espekulazioaren arazoaren errealitatea agertzen ditu.

**Maila:** A1    **Urtea:** 2023    **Orr:** 92    **Preziora:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## KRESALAREN TABERNA

Miren Agur Meabe / Aritz Eiguren (il.)

Emakume batek taberna bat zabaldu du hondartzan, aldi berri bat hasi nahi duelako. Banatuta dago eta ez dauka haurrik, soilik etorkizun zehazgabe bat. Zer da zoria? Nola onartu bakardadea? Non geratzen dira okerrak? Horiek dira bere galderatako batzuk itsasoari begiratzen dionean, urtaroz urtaro. Bizitzak, mareak bezala, asko kendu dio, baina agian asko ekarriko oraindik ere.

**Maila:** A1    **Urtea:** 2017    **Orr:** 68    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## NAIA ETA ESKULTORE ITSUA

Alvaro Rabelli / Pedro J. Colombo (il.)

Kaleko prostituta batzuk hilda agertu dira errepide-bazterretan. Heriotza horien atzean pertsonen trafikoa deitoragarria eta aberastasunaren paradisua aurkitu ez duten etorkinen bizimodu latza daude. Baina, heriotza horietan zerbait gehiago ere ezkutatzen da, zerbait iluna eta ankerra, Andre de Toth zuzendariaren House of wax (1953) filmean bezala. Naia detektibe gazteak eta bere laguntzaile Margotek argitu beharko dute.

**Maila:** A1    **Urtea:** 2018    **Orr:** 75    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## ZULOAN BARRENA

Josu Lartategi / Susanna Martin (il.)

Udako goiz epela da. Goxo nago eguzkitan, egonean, baina ibiltzera joango naiz, beti bezala. Gosalduta, emazteari agur esan eta abiatu naiz mendian gora. Halako batean, azeri bat ikusi dut kobazulo batean sartzen, eta azeriaren atzetik sartu naiz ni ere. Baina kobazuloan ez dago azeriaren arrastorik. Berritoki kanpora irten naiz. Orduan, sekulako oihuak entzun ditut:

—Geldi! Altxa eskuak!

Soldaduta bi dira. Baina, zer gertatzen ari da? Film bat da, txantxa bat, amesgaiztoa? Ez naiz lo geratu... ala bai?

**Maila:** A1    **Urtea:** 2024    **Orr:** 68    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## ATZAPAR ARRASTOAK

John Landon / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Hiru bat metro izango zen altu munstro hura. Gelako sabairaino iristen zen. Begi handi beltzei eta moko luzeari begiratu zien Larryk. Hegazti-mokoa zuen munstroak, baina hegorik ez. Besoak zituen soinetik zintzilik, luzeak eta iletsuak. Eskuetan eta oinetan, berriz, atzapar handiak zituen, gorrigorriak. -Atzapar horiek lau lagun hil dizkirate-esan zuen ahots batek.

**Maila:** A2    **Urtea:** 2013    **Orr:** 74    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## KATU BELTZA

John Milne / Kepa Orbe Ferreiro (il.)

Ekintzaz betetako detektibe-istorio moderno honen 7 protagonista Salahadin el Nur polizia inspektorea da. Poliziaren barnean, Antzinateko Ondasunen Sailean egiten du lan. Egipton dagoen europar arkeologo bat hilda agertu ondoren, balio handikoa den estatua txiki bat berreskuratzeko ikerketak hasten ditu Salahadinek. Laster jarriko da nazioarteko kontrabandista-talde baten arrastoaren atzetik.

**Maila:** A2    **Urtea:** 2013    **Orr:** 72    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## NAIA INDIA GORRIETAN

Alvaro Rabelli Yanguas / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Papiroflexia biltzar batera gonbidatuta zegoen gizon bat desagertu egin da ezustean. Haren maitaleak arrastoa galdu du. Naia detektibe gazteak eta Margot laguntzaileak lanak izango dituzte gizona aurkitzen. Hiriko ilunpe ezezagunetara eramango ditu kasuak bi neskak, baita lur azpira ere; hiri honetako aspaldiko india gorrietara, hain zuzen ere.

**Maila:** A2    **Urtea:** 2013    **Orr:** 72    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## ZISNEA ETA UHARTEA

Miren Agur Meabe Plaza / Iñaki G. Holgado (il.)

Kerman Mendizabalek bere historia kontatzen digu. Gaztea zenean, Eguzki lore hotelean lan egiten zuen. Behin, Aste Santuko oporretan, Julia ezagutu zuen eta une bereziak bizi izan zituzten; adibidez, uhartera egindako txangoa. Egun haietan, hain zuzen ere, bitxi-lapurretak gertatu ziren Bilbon, eta polizia hoteleraino heldu zen, galdezka. Egoera larritu egingo da Kermanentzat. Juliak ere alde egingo du. Orain, berrogei urte igaro eta gero...

**Maila:** A2    **Urtea:** 2013    **Orr:** 64    **Preziora:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## GEMINIKO NEBULOSA

Josu Lartategi Yustos / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Antso kapitainari misio sekretua agindu diote Eurasiako Konfederazioko agintariek: Marteko Hidra basera zama misteriotso bat eramatea. Bilbopolis megahiria atzean utzi eta, Hermes espaziontzian, bidaiari ekingo dio kapitainak. Marte planetan, ordea, ezuste ugari izango ditu. Aurkikuntza harrigarri batek munduaren eta bizitzaren ikuspegia aldatuko dio.

**Maila:** A2    **Urtea:** 2013    **Orr:** 68    **Preziora:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## LEGARRAREN DESAGERPENA

Miren Gorrotxategi /Manu Hortega (Ilus. )

Telmo Legarra polizia ohia herrira itzuli da, desagertutako alabaren bila hamar urtez Europan barrena ibili ostean. Etsita itzuli da, baina herrian aztarna berriak topatu ditu: Nahia desagertu aurreko Gabonetan ateratako argazki misteriotsoak Aulezti anaiak jarri ditu susmopean. Polizia-senari eutsi ezinik, berriro ekin dio ikerketari. Oraingoan aurkituko ote du Nahia?

**Maila:** A2    **Urtea:** 2021    **Orr:** 76    **Preziora:** ✕€




## DAKOTA ERAIKINEAN

Estibaliz Vivanco Ramirez / Dani Maiz (Ilus. )

Deiene Aketxetak New Yorkeko Guggenheim museoa lan-praktikak egiteko gonbite-mezua jaso du. Birritan pentsatu gabe, mezuari baietz erantzun dio. Baina gau horretan bertan, loak hartu ezinik ibili da. Erabaki ona hartu ote du? Ethan Whitefeather Guggenheimeko lan-harremanen arduraduna ezagutzean, gorputzaldi txarra berrituko zaio. Gainera, Markus bekadun-kidea Dakota eraikinari buruzko lana egiten ari da, eta Deienek eraikin enigmatikoaren misterioan sartuta ikusiko du bere burua.

**Maila:** A2    **Urtea:** 2021    **Orr:** 76    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## ISTANBULEN ELKARTUKO GARA

Richard Chisholm / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Han egon zen pixka batean Tom kale erdian, etxe ilun eta isil hari begira. - Anjela! - esan zuen poliki bere artean-. Anjela! Non arraio zaude? Handik metro gutxitara, gabardina grisduen gizona zegoen, atari ilun batean gordeta, Tomi begira. Haren mugimendu guztiak arretaz segitzen zituen... Antso kapitainari misio sekretua agindu diote Eurasiako Konfederazioko agintariek: Marteko Hidra basera zama misterioitsu bat eramatea. Bilbopolis megahiria atzean utzi eta, Hermes espaziontzian, bidaiari ekingo dio kapitainak. Marte planetan, ordea, ezuste ugari izango ditu. Aurkikuntza harrigarri batek munduaren eta bizitzaren ikuspegia aldatuko dio.

**Maila:** A2    **Urtea:** 2014    **Orr:** 88    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## TXIMELETAK

Miren Agur Meabe / Iñaki Holgado (il.)

Neska txikia jairo denean, amari tximeleta zuria pausatu zaio bularrean. Sei urterekin, tximeleta more bat marraztu du amabitxirentzat, baina hego bat falta zaio. Zergatik? Geroago, abade batek min izugarria emango dio, eta neska txikiari tximeleta munstroak agertuko zaizkio ametsetan. Etxea erre orduko, tximeleta arreak ikusiko ditu...

Tximeletek beti lagunduko diote, une goxoetan eta latzetan. Batzuetan, neska txikiak bera ere tximeleta dela pentsatuko du. Eta badaki argiak hil egiten dituela tximeletak, baina norberaren eraldaketaren sinbola ere badirela.

**Maila:** A2    **Urtea:** 2016    **Orr:** 68    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## PUZZLE BAT OSATZEKO MODUAK

Autorea: Andoni Tolosa, Mattin (il. )

Ariketak egin, akatsak zuzendu, misterioak argitu, ikaskide berriak ezagutu... Euskaltegiko A2 maila gramatika eta lexikoa baino askoz gehiago izan da Hectorrentzat, eta egunerokoan jaso ditu ikasturteko bizipen guztiak.

Iazko ikasturteetik gauza asko aldatu dira: ikaskideak, ikasgelako dinamika, harremanak... Batzuetan, euskaldun senfitu da Hector; beste batzuetan, estralurtar. Baina zer polita den euskaltegiko unibertsoa!

**Maila:** A2    **Urtea:** 2025    **Orr:** 72    **Prezioa:** ~~14,64~~ - 12,50 €



## ELURRAREN PROMESA

Miren Agur Meabe Plaza, Iñaki Landa (il. )

Inesek jabetxe batean lan egiten du asteburuetan. Arte Ederretako ikaslea da eta tatuajeak gustatzen zaizkio. Larunbat gau batean istripua izango du bizikletarekin, elurraren erruz. Esmatzean, hala ere, Erdi Aroan aurkituko da eta Inexa izango da denentzat.

Nola itzuli etxera? Nola itzuli XXI. mendera?

Bizitza oso bat pasatu beharko du mundu zahar horretan, zorion eta zoritxarren artean, urteko lehen elurrak berriz ere...

**Maila:** B1    **Urtea:** 2022    **Orr:** 64    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## IZU-ISTORIOAK

Bram Stoker / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

"Drakula" bezalako izu-istorioak idazten maisu izan zenaren hiru istorio: - Epailaren Etxea - Burdinazko Emaztegaia - Abel Behenaren itzulera Mendekua da gai nagusia eta hirurak dira misteriozkoak eta hotzikara ematen duten horietakoak.

**Maila:** B1    **Urtea:** 2014    **Orr:** 64    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## ENIGMAK

Georges Simeon / Bruno Hidalgo Garcia (il.)

Sei detektibe-istorio labur, Frantziako hainbat eskualdetan eta ingurune ezberdinetan kokatuak: G. 7, Altzariak mugitzen zituen mamua, Gorpua desagertu, Hans Peter, Monceau parkeko sutea eta Desagertuen gaztelua.

**Maila:** B1    **Urtea:** 2014    **Orr:** 72    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## PINKY PAILAZOA

Josu Lartategi Yustos / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Kanadaren eta Estatu Batuen arteko baso zabal eta ilunek sekretua gordetzen dute. Nor da Pinky pailazoa? Nola desagerrarazten ditu ume bakartiak? Zer da, bahitzai lea ala hiltzailea? Zergatik egiten ditu halako gaiztakeriak? Richard Smith inspektoreak pista bat du, eta pista horrek Euskal Herrira eramango du.

**Maila:** B1    **Urtea:** 2014    **Orr:** 88    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## TITARE BETE ZORION

Miren Agur Meabe Plaza / Enrique Morente Luque (il.)

Juaneke eta Mariak elkar ezagutu dute. Juan maisu erretiratua da, eta Maria, jostuna. Elkarrekin bizitzen jarriko dira, oroitzenak eta asmoak partekatzeko. Hala ere, garbi dute oraina dela garrantzitsuena. Konpromiso bakarra, batak besteari zorion apur bat ematea. Baina Juan gaixotu egingo da.

**Maila:** B1    **Urtea:** 2014    **Orr:** 88    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## INFERNURANTZ

Estibaliz Vivanco / Aritz Eiguren (il. )

Columbia Unibertsitateko Tom Bradford irakaslea 16 ustekabeen hil eta gero, Gabriel Pritchardek hildako lagunak sortutako CUMAE fundazioa ezagutuko du, Beatrice alargunaren eskutik. Aurkikuntza horrek hainbat ezusteko ekarriko dizkio Gabrieli, eta haren amesgaizto guztiak egia bihurtuko dira.

**Maila:** B1      **Urtea:** 2015      **Orr:** 88      **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## AITANA MENDIAREN AFERA

Miren GORROTXATEGI/ Manu ORTEGA (Il.)

Telmo Legarra Pariseko teilatupeko gela txiki batean bizi da, herritik urruti eta bakar-bakarrik. Aitana Mendia andre euskaldun misterioitsuak lana eskaini dioenean, polizia ohiak ezin izan dio ezetz esan: dirua behar du, eta, gainera, Aitana herrikidea izateaz gain, emakume erakargarria da. Baina zergatik ez du poliziarengana jo? Zer ezkutatzen du afera honek?

**Maila:** B1      **Urtea:** 2024      **Orr:** 72      **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## **MARATON - ATHLETICEN HISTORIA EZBERDIN BAT**

Lutxo Egia / Paul Caballero (il.)

Athleticen historia jokalarri handien izenez abiatzen da: Pichichi, Zarra, Iribar... edo, zergatik ez, Aduriz. Athleticen historia hori klubak berak argitaratutako liburuetan ikas dezakegu. Gure istorioa (eta Athleticen historiaren zati tiki bat), ordea, Bilboko San Francisco auzoan hasten da 1925ean eta emakume bat du protagonista: Sara Estevez 'Maraton'.

**Maila:** B1      **Urtea:** 2016      **Orr:** 60      **Preziora:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## **DORIAN GRAYREN ERRETRATUA**

Oscar Wilde / Paul Caballero (il.)

–A, bai, zoriontsu gaudenean, beti izaten gara zintzoak, baina zintzoak garenean, ez gara beti zoriontsuak.

Lord Henryren hitz zorrotz eta arriskutsuek mundu beldurgarri batera eraman zuten Dorian Gray gaztea; mundu hartan garrantzitsuagoa zen ederra izatea, zintzoa izatea baino; mundu hartan edozer barkatzen zen, hilketa ere bai, afalostean jendeari barre eragiteko modukoa izanez gero behintzat.

**Maila:** B1      **Urtea:** 2017      **Orr:** 68      **Preziora:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## HISTORIA ALA ISTORIAOA?

Nagore Irazustaberrena / Ruth Juan (il.)

Napoleon handia gizon txikia al zen benetan? Zein da erpurua gora keinuaren egiazko esanahia? Egia al da piratek altxorrak lurperatzen zituztela? Nork asmatu zuen gillotina? ...

Historiarekin jolas egiteko irakurgaia duzu esku artean: gertakizun historikoen bi bertsio proposatzen dira, irakurleak asmatzeko bietako zein den zuzena, non dagoen historia eta non istorioa.

**Maila:** B1    **Urtea:** 2018    **Orr:** 79    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## BAIONA

Bea Salaberri / Asisko eta Dom

Baiona ezagutzeko gida da hau: hiriaren aztarnategiek erakusten duten antzinako Baiona zaharrear hasi eta egun sortzen ari diren auzo berrietaraino. Asteburuko ibilbidean bisitatuko ditugu Baionako karrika nabigagarriak, eraikin ikusgarriak, naturguneak, ostatuak, merkatuak, harresiak... eta baionesak! Baionako jende euskalduna.

**Maila:** B1    **Urtea:** 2019    **Orr:** 64    **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## BILBO

Lutxo Egia / Asisko Eta Dom

Bilbon barrena bisita gidatua egiteko proposamena da hau. Orain kale bat, gero zubi bat, hurrena historia puska bat... hiriko eskulturen inbentarioa eginez abiatuko du gidariak ibilbidea Bilboko baldosetan barrena, hiri zahar, bizi eta erakargarria eraikiz, bilbotarren bizipenen bitartez.

**Maila:** B1      **Urtea:** 2019      **Orr:** 64      **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €




## DONIBANE GARAZI

Nora Arbelbide Lete / Asisko eta Dom

Historia eta kondairaz betetako hiria da Donibane Garazi gida honetan: euskara plazara jaigarazi zuena, Nafarroako hiriburua hau ere, gerraosteko iheslerien aterpea, negoziarako hirigunea, bidaiarien eta historiaren bidegurutzea... Eta bai, Donibane Garazi ederra ere bada, polit-polita, zinez ikusgarria, harri gorritaz eraikia, mendiarte leunaren babesean.

**Maila:** B1      **Urtea:** 2019      **Orr:** 64      **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## DONOSTIA

Nerea Auzmendi / Asisko eta Dom


Donostian bisita gidatua egiteko proposamena da hau. Hiria ezagutzera datozen biloba gazteei izeba donostiarrak egindako ibilbidea. Tabakalerako terrazan abiatuko da, eta Sokamuturra kalekan bukatu, Loretoera begira. Gune eta zoko baketsuen hiria proposatzen digu, jendetza zalapartatsutik ihesi.

**Maila:** B1

**Urtea:** 2019

**Orr:** 64

**Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## GASTEIZ

Patxi Zubizarreta / Asisko eta Dom

Gasteizen barrena bisita gidatua egiteko proposamena da hau. Gidariak Gipuzkoatik iritsitako lagun-taldearekin batera korrituko ditu Gasteizko kaleak, eraikinak, parkeak, plazak, artelanak, hilerriak, tabernak, museoak, auzoak, historia puskak eta istorio osoak. Asteburu bakarrean hiri berdea goitik behera ezagutzeko aukera eskaintzen digu.

**Maila:** B1

**Urtea:** 2019

**Orr:** 64

**Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €




## IRUÑEA

Enrike Diez de Ulzurrun / Asisko eta Dom

Iruñea entzutean, berehala Sanferminak etortzen zaizkigu gogora. Baina Iruñeak beste gauza asko ere baditu jaiez gain, eta horietako batzuk biltzen ditu gida honek. Ibilbide bat proposatzen du kalez kale, plazaz plaza, txokoz txoko denetariko kontuak azalduta, bertakoentzat zein bisitarientzat jakingarriak, eta askotan, ezezagunak.

**Maila:** B1      **Urtea:** 2019      **Orr:** 64      **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## MAULE LEXTARRE

Allande Sokarros / Asisko eta Dom

Euskal Herrian ekialdeena dagoen hiriburua da Maule-Lextarre, tamainaz txikia, historia eta nortasun handikoa. Zer ziren zinbiteak? Nor da Matalaz? Non da Laminen etxea? Eta ur hotza eta epela batera ematen dituen Laminen iturria? Egun bakarrean burutzeko ibilbidean, lehengo eta egungo Maule-Lextarrerren argazki hurbila jasoko dugu, eta Zuberoan barrena egiteko itzuli polita ezagutuko.

**Maila:** B1      **Urtea:** 2019      **Orr:** 64      **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €




## APAIZ GERRILLARIAREN EZKUTALEKUA

Ander Izagirre / Maite Mutuberria (il.)

Aramaioko mendietan badago sarrera estuko kobazulo bat, azeriak bakarrik sartzeko modukoa. Hantxe ezkutatu zen apaiz gerrillaria, afusilatu nahi zutenengandik ihesi. Kobazuloa ezagutuko dugu, baita Euskal Herriko beste bederatziti txoko eta sekretu ere: erromatarren meatzeak, munstro ehizatarien etxeak, dinosauroak suntsitu zituen meteoritoaren errauntsak, Erdi Aroko mezu harrigarriak.

**Maila:** B2      **Urtea:** 2015      **Orr:** 88      **Prezioa:** ~~14,65~~ - 12,50 €



## ERDI AROKO EGUNAK

Laida Martinez

Bilbo hiribildu bihurtu zeneko aroan kokatu du Laida Martinezek bere eleberria. Fikziozko lana da, baina pisu handia dute garaiko gertakari historikoeak. Besteak beste, portuko gorabeherak eta Diego Lopez de Haro eta Maria Lopez de Haro pertsonaiak agertzen dira nobelan.

**Maila:**      **Urtea:** 2016      **Orr:** 96      **Prezioa:** 15 - 12,75 €



## AMAIA UDALEKUETAN

Onintze Goitiz

Gaztetxoentzako abentura liburua ondu du Goitizek, eta Irakurketa Errazeko lanen artean kaleratu Gauminek. Amaia da protagonista: jaiotzez gorra, eta gurasoek gehiegi babesten dute. Ikasturte amaieran, udalekuetara joatekoak dira haren lagunak; Amaiak ere joan nahi du, gurasoen baimenik ez badu ere.

**Maila:** B1      **Urtea:** 2015      **Orr:** 62      **Prezioa:** 15- 12,75 €



## RIF MENDIETAKO URA

Montse Flores Pallarés

Ahmed gaztea Rubi-n bizi da, Bartzelonatik gertu, baina marokoarra da izatez, Rif-ekoa. Tati klasekide erakargarriaz maitemindu da bere bizitzan lehendabizikoz. Celes bere lagunak kamera bat lapurtzeko eskatu dio. Ahmeden anaia zaharrena atxilotze-zentro batean da, lapurtzeagatik, eta berak tentazio horri aurre egin nahi dio. Marokoko ohiturak eta familia kontuak ere ezagutuko ditugu Ahmeden abenturan.

**Maila:** B1    **Urtea:** 2014    **Orr:** 64    **Prezioa:** ~~15~~- 12,75 €



## TXERNOBIL TXIKI BAT ETXE BAKOITZEAN

Ander Izagirre

Txernobilgo istripu nuklearra gertatu zenean, Juliak 13 urte zeuzkan eta aire librean jolasean ibili zen egun osoan. Igorrek 28 urte zeuzkan, soldadua zen eta zentralera lanera korrika joateko agindu zioten. Inork ez zien azalpenik eman. Orain Juliak erreportaje bat idatzi nahi du, Txernobilaren zer gertatu zen eta gaur egun ingurua nola dagoen kontatzeko. Igorri eskatu dio laguntza, katastrofearen garaiaz biek dituzten oroitzapenak biltzeko eta, Txernobil bisitatzen duten bitartean, ondoan lagun bat izateko.

**Maila:** B1    **Urtea:** 2014    **Orr:** 80    **Prezioa:** ~~15~~- 12,75 €



## SANTIAGO BIDEAREN MISTERIOA

Fernando Morillo

Diotenez, Santiago Bideak magia egin dezake ibiltari bakoitzaren baitan. Ulises marinela zaharra da. Bere itsasontzia hondoratu zenean, bera bakarrik atera zen bizirik, eta beldurra hartu zion bizitzari. Kemen, berriz, mutil gaztea eta irribarretsua da. Itxuraz, ezin zoriontsuagoa, bizitzaz eta bere neska-lagunaz maitemindua. Biak elkartuko dira Santiago Bidean, bakoitzak duen promesa sekretua betetzeko asmoz.

**Maila:** B1      **Urtea:** 2014      **Orr:** 80      **Prezioa:** ~~15~~ - 12,75 €



## IXTEBE PELLOT AZKEN KORTSARIOA

Fernando Morillo Grande

Bizitza batzuk zailak dira sinesten. Hain dira ausart, noble, umoretsu, nekaezinak, existitu daitezkeenik ere ezin dugu ia sinetsi. Baina hor dugu Ixtebe Pellot, azken kortsarioa. Itsas-borroka etengabea, askotan hartu zuten preso. Arriskuz arrisku, sekula etsi gabe, beti egin zuen ihes. Musika eta dantza maite zituen, eta karkaraz erantzuten zion minari. Begietara begiratzen zuen. Horregatik maite zuten lagunak. Baita etsaiek ere! Hemen kontatuko dena benetakoa da, sinesgaitza iruditu arren. Prestatu. Norbait aparta ezagutzeko zorian zaude: Ixtebe Pellot, Euskal Azeria.

**Maila:** B1      **Urtea:** 2016      **Orr:** 72      **Prezioa:** ~~15~~ - 12,75 €



## LAMIA

Josu Lartategi

Lamiak euskal pertsonaia mitologikoak dira. Kontakizun honetan lamia gazte baten ibilaldia ezagutuko duzu. Kostaldetik barrualdera joango da, kaio baten laguntzaz, erreka garbiei zerbait oso arraroa gertatzen ari zaielako: urek kolore gorria dute. Zergatik aldatu da uren kolorea? Zer gertatzen zaie errekei? Lamiak misterioa argitu nahi du. Horretarako, ez da bakarrik ibiliko, ez horixe! Lagun berezi-berezi batzuen laguntza izango du.

Istorio honetan beste garai batean sartuko zara, garai zaharra, antzinakoa, eta pertsonaia mitologikoak ezagutuko dituzu: Tartalo, Galtzagorri, lpotxak, Herensugeak...

**Maila:** A1.2      **Urtea:** 2016      **Orr:** 48      **Preziosa:** ~~6,95~~ - 5,90 €



## MUSEOKO HILTZAILEA

Josu Lartategi

Nork mehatxatu du eskultorea? Nork hil nahi du eta zergatik? Luigik laguntza eskatu dio Martin Iriberrri ikertzaileari. Diruz txarto zabiltzanean ezin diozu lan-eskaintza bati ezetz esan, nahiz eta etsai batena izan. Horixe gertatu zaio Martini. Lan erraza dirudi hasieran. Sakonago ikertzen hasi denean, ordea, ulertzen ez dituen gauza gehiegi dagoela konturatu da.

Istorio beltz honetan Bilbon zehar ibiliko zara, Martin Iriberrri ikertzaile pribatuarekin. Galtzaileen eta irabazleen hiri horretan edozer gertatu ahal da, baita hilketa ikaragarriena ere.

**Maila:** B1.2      **Urtea:** 2016      **Orr:** 48      **Preziosa:** ~~6,95~~ - 5,90 €



## BALEA

Josu Lartategi

Baleak, planeta honetako animalia handienak, arriskuan daude. Azkenak irla bakarti batean bizi dira. Bertan jolastu eta amets egiten dute, bertan maitatu eta atsedean hartu. Arriskua, hala ere, oso hurbil dute, arrantzaleak haien bila doazelako... eta gizakien odol-egarriak ez du mugarik. Baleek ondo dakite hori; horregatik, azken bidaiari ekingo diote. Urrunera joango dira, oso urrunera.

Istori honetan Haundi eta Poff izeneko baleak ezagutuko dituzu: balea zaharra eta balekumea. Horiek izango dira protagonista, kapitain krudel batekin batera. Baleak eta gizakiak aurrez aurre...

**Maila:** A2.2    **Urtea:** 2016    **Orr:** 48    **Prezioa:** ~~6,95~~- 5,90 €



## ASTEROIDEA

Zaharren Egoitza leku lasaia da, lasaiegia. Bertan, zaharrek bizitza egiten dute. Hiltzeko oso denbora gutxi falta zaiela uste dute eta horregatik ez daukate itxaropen handirik etorkizunean. Nahikoa da telebista ikustea, jatea, trikotatzea, paseotxoak egitea, lo egitea... eta berriz ere dena errepikatzea. Bisitak ere badituzte, baina oso gutxitan, senideak ez direlako ia inoiz zaharrekin gogoratzen.

Egun batean, ordea, telebistak berri harrigarria eman du: asteroide erraldoia dator lurraren kontra eta munduaren azkena izango da. Une horretatik aurrera, bizitza erabat aldatuko da Zaharren Egoitzako lau atso-agurerentzat, Antontxu, Mikela, Boni eta Eukenirentzat.

**Maila:** A2.2    **Urtea:** 2016    **Orr:** 48    **Prezioa:** ~~6,95~~- 5,90 €



## SOPELAKO ESAERA ZAHARREN TXAPELKETA:

### EDO NOLA (EZ) ANTOLATU HERRI-EKINTZAK

Aitor Fdez. De Martikorena Rodriguez

- Izan zara inoiz Sopelako Esaera Zaharren Txapelketan (EZT)? Bada, liburu honek orduko oroitzapenak freskatuko dizkizu.
- Ez zara inoiz izan bertan? Bada, barkatzen dizugu, baina, gainera, liburu honek azalduko dizu nolakoa den EZT, eta, agian, kasurik onenean, hara joatera animatuko zaitu.
- Pentsatu duzu inoiz lehiaketaren bat antolatzea? Bada, liburu honek esango dizu, gutxi gorabehera, zer egin (baita zer ez egin ere).
- Esaerak eta/edo bertsoak landu nahi dituzu ikasleekin edo zeure kabuz? Bada, liburu honek horretarako materiala jarriko dizu eskura.

Baina egon lasai: goiko baldintzak betetzen ez badituzu ere, liburua gustatuko zaizu (edo hori uste dugu), umorez dagoelako idatzita, batzuetan ironiaz; euskal kultura ez delako - ez du zertan izan - beti serioa.

**Maila:** C1      **Urtea:** 2026      **Orr:** 235      **Preziora:** ~~18~~ - 15,30 €

